


[A]

1970 - (Urta?)





AURKIBIDEA.

AURKIBIDEA1 or.
MARRAZKIAK ,hirutatik bost urtetako haurrekin ..3 or.
ELKARRIZKETA(BINAKAKOA)7 or .
ANDEREÑO adiskide batekin berriketan 17 or.
ASKATASUNA 20 or.
ESPRESIOA ===..... 24 or.
LANAREN ZUZENKETA..

Lan banandua eta lan kooperatiboa.Lan

hauen zuzenketa 29 or.

EGUBERRIAK 6 eta 7 urteko haurrekin

" Konsejoa "40 or.



MARRAZKIAK

Hirutik bost urtetako haurrekin

Ikastoletan marrazki asko egiten danez gero, beraien bitartez ze lortzen duten adieraztea interesgarri izan ditekeala iruditatu zait.

Hirutatik bost urtetako haurrekin, marrazkiak beti libreak izan behar luke te; bostetatik seitakoekin bi eratara joka ditekete; zearo libre batzutan eta gaia emanik bestetan.

Lehendabizi marrazki libreak ari tuko naiz. Marrazkigintzak zearo librea izateko kondizio hauek behar ditu: haurra marrazkia egiten ari danean, berak nahi dualako jardutea; paperean nahiz harbelean nahi duana egiteko eskubidea izatea; eta tresna guztiak, andereñoari ezer esan gabe, berak erraz hartzeko moduan edukitzea.

Ze lortzen da?

- Berak nahi duten bezala egitean (nahi dutena ez noski, ahal dutena baizik, ahalmen hortan aurrera dijoazten neurrian urreratzen joango dira nahi dutena plasmatze hortara) inizatiba aske uzten zaielarik beren barrenean daramatena lotsarik gabe agertzen dute eta autentikoak izaten ikasten hasten dira, hots, nor bera izaten?

- Esperientzi pillla bat egiten dute eta hasieran subkonszientearen agerketa hutsa dan bezala, pixkanaka espresio-bide konszientea bihurtzen joango da.

- Beren buruarekiko konfiantzan handia artzen dute.

- Marrazki librea egitean haurra sortzaile da, eta hau gizonaren ahalmen handieneko bat izanik, oso garrantzitsua da haurrari bide hontan oztoporik ez jartzea.

- Irudimena indartzen eta kanalizatzen bide batetik eta beretik dijoakie.

- Munduaz dituzten perzepzioak, definitzen.

- Nortasuna sendo oinarritzen.

- Eta azkenik, haurrek barren-barrean dituzten konfliktoak marrazkien bidez kamporatzean, lasaitu egiten dira, askatu eta zenbait aldiz sendatu.

- Handitxoei lehenago esan dudan bezala, aurrez gaia eman lekieke. Esan beharrik ez dago gaia berak nahi duten eran marraztuko dutela. Mota guzietakoak izan litezke. Adibidez hona hemen neronek erabili izan ohi ditudanen zerrenda.

- Ikastolara etortzean ikusi dutena.

- Igandean ikusi eta egin dutena.
- Ibilaldi bat egin ondoren, hura marrazkiz esan.
- Beren etxea barrutik, kampotik. Beren familia, kalea.
- Sentipenak: negargurea, posa, aserrea. e.a eragiten dien sentipenak.
- Berak kantatzen dituzten abestiak


Honela gauzaz konturatzera bultzatzen zaie eta oroitzapena estimulatu. Irudimena ere zeazten dijoakie, berak perzibitzen duten mundua akumulatorik dituzten impresio piloa espresatzeko forma batzuk arkitu beharrean dira-ta.

Hauek honela direlarik, eman zaien gaiekin zer ikusirik ez duten marrazkiak egiten badituzte, onartu. Ba liteke oraindik oso zaila egitea edo ta esan nahi dieguna ulertzeko gai ez izatea-ta.

Adin honetan ere marrazki librea erabilli behar da nagusiki, gaiekikoa tarteka. Kampoko eta beren barreneko impresioak libreako azaltzen saio ugari egin behar bai dute, gero gaiei lotuta konkretuki eta benetan sentitzen dutena agertu ahal izateko.

Aitatu ditudan guzi hauek eta ulertzera irixten ez naizen zenbait gauza, ez dira,

noski, marrazko egite utsarekin lortuko; nahiz eta marrazkigintza oso bide importantea izan, zati bat besterik ez da, heziketa guzia giro hortan egokitua behar du izan, ondoren hoiek gorpuzten joan ditezten.



Elkarizketa

(Binakakoa)

I) Gizonik ez litzake, gizarterik ez balitz; zenbat eta gizarte hobea orduan eta gizon hobea.

Gizarte batek, batak besteekin hartu-emanak eskatzen ditu; besteekin hitzegitea gure izatea beste batzuekin bat eramatea.

Onak adierazten digu zenbateraino gizarte baten osatzen goazen. Zenbaterainoko garrantzia duten besteekin ditugun hartu-eman hoiek; eta norainoko garrantzia duan, era batera edo bestera jokatzek; era batekoa edo bestekoa izateak. Izan ere gizon guziak berdinak bagina ez legoke problemarik; baina gertatzen dena besterik da; era oso desberdinetan jokatzeko dugu; gizartetik gizartera bada alde ederrik. !Eta gure gizarte eratik, gure umeen-era bada tarte politik!

II) Gaur gertatzen danek beintzat, eta gero ere hala izango ote dan nago; hitzak garrantzi izugarria du. Idatzi ere asko egiten da; baina hitzegin gehiago, zori-txarrez edo zorionez. Begiratu bestela telebista, irrati eta beste milla erari. Gizonak asko hitzegiten du; nunai eta edozeinekim. Eta badirudi gauzak hitzegin eta kompontzen dirala.

Eta ez bestela. Hitzak hitzak dira; haizeak daramazkinak; bai, egia da. Eta halare horrek du indarra; esaten degunari, eutsi egin nahi diogu, hitza bete nahi digu. Ondo hitzegin nahi dugu. Edo gaitza salatu nahi du gu-hitzez...

Gure izate osoa badirudi hortan di joakigula; eta hitzegitean gure izatetik, pu ka bat hartan jartzen dugu.

Gure sendimenduak horrela agertzen ditugu. Gure asmoak hitzez eratzten ditugu.

III) UMEEI BEGIRA.

Hasiera hasieratik umea gizartean bizi da; gizarte txikia, neurtua; baina gizar tea; familia alegia. Lehenbizi kiñuz eta ne- garrez hasten da agertzen. Gero azten dijoan era argitzen eta bereizten dijoa bere hizkun tza; hau da: berak nahi duana azaltzeko era Laster hitzegiten ikasten du; eta hitzak era biltze ditu besteekin dituen hartu-emanetan. Hau gero eta errazago egiten du; izan ere ge ro eta gizarte zabalagoa du inguruan; gero eta gauza gehiago ikusi eta ezagutzen du. Hori dala-ta gero eta behar handiagoa besteei hitzegiteko; dakiana azaltzeko, eta gauza as- ko eta askoren berri ez bait daki hanitz du galdetzen. Honela bere hizkuntza aberasten -- dijoa. Jakintzaz osatzen. Bere mundu estu hu- ra argitu eta zabaltzen. Hontan zirriborro batzuk egin ere egiten ditu.

Gure ikastoletan umeak hain txikitandik hartzeak beste arrazoen artean, arrazoi, haundi bat hau da. Umeai burua, adimena, irekitzen saiatu; jakintzaz aberastu baino gehiago, gero hartuko duan jakintza erraz har dezala. Ikasketaren mundua ez dakiola gerta mundu xelebre eta ez ezagun bat. Eta batez ere irakasle eta beste umeekin dituan hartu emanetan -- kompleju bageak izan ditezela; normal azaldu dedil hitzegitean, ikasteen.

Hau izan ohi da eragozpen haundibat gero benetan ikasten hasten diranean. Hitzegiten badakite; baina materialki bakarrik; frantsesez ez dakien batek frantsesa irakurtzen duan eran; zer esaten duan ez dakiela. Eta hitzegiteko ere zailtasun haundiakin hitzak atera ezinik, isiltasunak lotuta, itzegitera ausartzen ez diralarik. Hori-izozt. Hori- hau tsi behar dan ola edo ala, bai irakasleekiko bai bere lagunekiko ere.

IV) MUNDU HORI LORTZEA.

Guk, noski, ez dugu eskubiderik gure ikastoletan diran umeak, gure erara, gure uste atera, era hontako edo artako gizarte bati lotzeko. Hori heuren aukertu beharko dute. Eta hontan dago gure lana: aukera egin behar dutenean benetako aukera izan dedilla. Noski hortarko "Sentido critico" haundia behar; buruz ondo jantzita egon behar.

Gaurko munduan dagoan arriskurik haundiena ez ote da? Denak masa bihurtuta gaude-la. Hitzegiteko aukerarik ez dugula. Aukerarik ezin genezakeala egin. Umeak elkar izketaren bidez, arazoak azaltzen dijoaz. Eztabaidatu egiten dituzte. Edozein arazoren aurrean ez dira atzeratzen. Eta guk hortan bideak ireki behar dizkiogu.

Umeak hizketan ikasi egin behar dute. Zertaz ari diren dakitela. Zer ikusten edo entzuten duten jakinaren gainean. Gizona bakarrik gaizki moldatu ohi da bizitzako ume zail edo errazagoetan. Besteekin hitzegin beharra etortzen zaio; beharrak eraginda nosko. Ikastolan umeak dituzten arazoak bildur gabe aztertzen ohiu behar dute. Gaizki ikusten dutena esateko beldurrik gabe ondo egiteko prest; beren lagunekin lanak eta asmoak aurrera eramateko gertu beti. Mundu erraz hontan ere problemak badaudela ikasi behar dute, arazo garrazak gainera. Arazo hauek gizonak aurrez aurre aztertu beharrezkoak direla, arazo hauek bildurrik gabe aztertu behar dituztela.

Hontarako onena beti gizonak ohi duana, laguna da. Eta lagunak sortzen edo erabiltzen erakutsi behar dizkiegu. Elkar hizketaren bidez elkarren konfiantza berera iritxi. Gero bizitzaren aurrean gertatzen diranean, era honetan lagunak baldin badituzte moldatuko dira. Guk lagundu egin behar diegu arazo haue-tan. Askotan haurren mundua oso urrun gelditzen da guk azaltzen diegun mundutik. Hemen dago gu re lan haundi bat.

V)

NOLA EGITEN DITUGUN ELKARRIZKETAK

Azkeneko udara aldian jursilloetan ibili eta entzun eta irakurri, eta, beste gauza askoren artean ideia on bat hau izan zan. Lehen esandako guzia aurrera eramateko erarik onenetariko bat, elkarrizketa dala.

Egun batean hastea pentsatu genduen. Umeak ez zekiten zer izan zitekean, eta nik proposatu nienean ez zuten asko ulertu. Harelare hastea erabaki genduen? izan ere askotan hitz asko baino, pixkabat eginda gehiago ulertzen bai dute. Bi ume gertatu ziran denen aurrera irtetzeko. Irten ziran eta hitzegiten hasteko esan nien nahi zuten eran eta gahietan. Hasi baziran hasi ziran; ezin isildu aizkenean.

Hain ondo aritu ziran... Denak ulertu zuten hura zer zen. Orduan denak egin nahi zuten; denak hain ondo sentitzen ginan! Eta hala jardun ginan aspertu gabe ordu betez. Urrengo egunean ere horrela jarraitu genduen denak konten eta pozik.

Elkarrizketan, ikusiko duzuten bezala i'ka hitzegiten dute. Honela askoz bizitasun gehiago du gauzak. Elkarrekin komfiantza haundia hartzen dute.

Batzuk beti izaten dute eskuakin eta mimikaren bidez oso gauza polita egiten dute antzerki erara; oso bizia eta beren mundukoa da.

Gaur arte lortu nahi izan duguna: gauzak esaten ohitu. Bildurra kendu, Eta hau uste dugu lortu dugula. Gero beste fase batean, landu beharko ditugula, Gaiak azaldu eta aztertu beharko ditugu. Gai bereziak aukeratu beharko ditugu; eztabaidatu eta abar.

Ikusi orain nola ari diran heren artean.

ELKARRIZKETA

Iñaki Goñi eta Jose Francisco Larrearen artean.

Larrea.- Kaixo! Zer moduz?

Goñi - Ondo; eta hi?

L.- Bastante ondo; pixkabat gaizkiago

G.- pixkabat gaizkiago e?

L.- Etxia badakak?

G.- onbre; eta ama, eta nere etxian gainera tia eta tio.

L.- nik aita eta aitita.

G.- nik arreba eta anaia; etxian danak; orrek nere etxian dan danak.

L.- nere etxian milla.

G.- nerian orren erdixa baino gutxiago.

Larrea - Ezkonduta ago?

Goñi - ez.

L.- Komunioa eginda ahal ago?

G - Bai; orain dala ogei urte.

L.- Zer moduz? ze andra, ona ala txarra?
ala ona, ze...

G.- txarra eta ona; bi.

L.- Ba lehen esan duk ez agola ezkonduta

G.- baina etorri egin zaidak.

L.- baina lehengo astelenian, galdu nian
eta ezkonduta ez egon

Goñi.- Zer, jersey urdiña?

Larrea ez dakit zer doloretakua daukaten.

G.- haundixa aiz e?

L,- iru metrokua

G.- iru?

L.- bai, iru

G.- orduan nik lau; ni haundiagua.

L.- ba olan.

G.- zatiketak badakik egin?

L.- ogeta bost numerokua ere; bakarrik luzia-
gua dala. Baiña berdiña.

G.- Ba nik egunekua.

L.- nik orren doblia eta triplia.

G.- eta nik kuadruplia.

L.- zer jan duk?

G.- baaa iru kilo.

L.- iru bakarrikan?

G.- iru kilo tomate

L.- nik lau kilo eta patatak, tomatia baiño obiak.

G.- baneretzat ez

L.- ba obia dok ba.

Goñi.- Astua badakak?

Larrea nik ez; nere baserrikuak bai.

G.- esaiezu ostikaria ematen duala; eta Nuebayork eraño jaurtiten dula

L.- eztot ikusi iñoiz ere olako ostikarik ematen; eta Nuebayork era bialtzen.

G.- izan ere zuk ez diozu egiten ola: nnn,rrrr, arre arre...

L.- zezena da eta, bestela adarka egingo dit; ez astua.

G.- baiña astua ere ez da ona; ba zat eta zat ankakin.

L.- baiña nik ez daukat astorikan, nere lengusuak bai.

G.- ba lengusuari esan.

L.- baiña zeni? amari eta besteari eta besteari...

G.- bai; eta astuari ere.

L.- ez dizu entendiuko.

G.- Nun dakak etxea?

L.- ilargixan.

G.- nik Marten.

L.- nun dago hori "Marten"?

G.- beste planeta bat dok hori; urruti

L.- ni koetian etorrita nago e...

G.- eta ni ere bai; ni etorri naiz egun mil-
la bider.

L.- ni ogeta bost milla, baiña beintzat etor-
ri naiz eta.

G.- Aita badakak?

L.- bi; baiña bat ilda; eta gero beste batekin
eskondu zan nere ama.

G.- eta nik iru. Il ziran bi eta beste batekin
eskondu da. Beste birekin, bat emen eta bes-
tia han Ameriketan.

Larrea.- Lantegian asi haiz?

Goñi,- ez ikastolan nabil motel.

L.- orduan dirua galdu egingo duk ez irabazi.

G.- nik ez dakat dirua.

L.- ba erropa dotoretzuak dakazuz ba, dirurik ez eukitzeko.

G.- zapata politak zuk e?

L.- nik diru asko daukat baiña, zuk diru gutxi eta olako dotore...

G.- eman egin die dendan.

L.- dendan eman ez dakit baiñan kendu bai bein tzat, erropak eta erosten.



Andereno adiskide batekin berriketan

Andereno adiskide batekin berriketan ari nintzala, ikastolatako haur erdaldu nen prolema etorri zitzaigun arira eta haur hoiek euskera utsezko ikastoletan euskaldun-dutzeko eskubiderik ba ote degun ala ez jardun giñan denbora luzean. Hauzi hau sarritan planteatzen degunez gero, horrezaz artikulu bat idaztea bururatu zait.

Nere adiskideak, arazoa honela planteatzen zuan: Haurrari bere hizkuntzan mintzatu behar zaio ikastolan, tajuz ezitzeko. Haur hoiek ikastolan bakarrik euskera en tzuten dutenez ez dute ondo ulertzen, are gu txiago espresa ditezke; kondizio hauetan ezin dezakete behar bezelako aurrerapenik egin. Or duan guk gure haurrentzako nahi ez duguna bes teei egin erazten diegu eta hori ezin ditezke ametitu.

Honelako planteamenduan aurrean noiz-nahi arkitzen gera euskaldunok, hitzaldiak eratzean dela, batzarrak direla, gau-eskolak, Elizako gora beheretan. "eskubiderik bai al dugu?" Guri horrelakorik egiten digutenean miñ artzen dugu!" "Eliza guziena da!" "Hoiek ere gizonak dira!"... Beti berdin.. Situazio normal batean bageunde bezela. Eta zoritxarrez hori horrela ez danez gero, gure arteko gertakizunak, gizarte normal bat dute nen neurri berean ezin ditzakegu epaitu inolaz ere.

Simone Weil-en "L'Enracinement" liburuan irakurririk dut gizonaren beharrik handiena bere obligazio guziak betetzeko egokiera izatea dela, hau da, obligazio bat betetzeko beste obligazioak zapaltzeko situazioetan ez dedilla sekulan arkitu. Egoera oker hauek zenbat eta -ugariagoak izan, gizarte estruktura injustuagoa salatzen duela.

+

Aitatzen dan egoera penagarri hoetan leporaino sarturik gaudela ezin diteke uka.

Eskubiderik ez dugu, haurra berea ez duen hizkuntzan hezitzeko; ez da ere Euskalerrian jaio eta bizi behar duenari gure artean integratzeko behar duen hizkuntzarik ez emateko. Hori haurraren eskubideei dagokienez. Eta gu, euskaldunok, ze eskubide ditugu? Gure herriak...?

Izugarrizko kezka sorrarazten dizki-gute erdaldunen arazoak; benetakoak dira eta importanteak, bainan euskaldun haur guziak erdaldunak baina egoera larriagoan arkitzen direla konturatzen ahal gera?. Beren herrietan arkitzen direlarik beste mintzaira bat erabiltzera behartzen dituztelako eta irakasleak euskera ulertzen ez dutelako (ikastolak minori bateraino bakarrik -irixten direla ohartu gaitzen; asko jota batxi-lleratorarte) Gure haurrak milla bider urrikarriagoak izanik, ez ote gera beren egoeraz ohitu? Eta egoera hau dramarik gabe igarotzen duen haurra, bere nortasunaren zati handi bat lapurtu diotelako dala, pentsatu.

Gia esateko, haur erdaldunak ikastoletan euskaldunei egin lezaieketen kalteak, kezka handiagoa ematen dit neri, gauden egoeran euskaldunak erdaldun bihurtzea errazagoa bait da. 38

Dana dala haur erdaldunen arazoa garrantzi handikoa da eta ezin genezake begien aurretik ken. Beste metodo bat behar dugu kalterik gabe, pixkanaka, gure hizkuntzaz jabetu ditezten. Bainan gure ikastolak hainbeste neke eta larritasunekin juxtu-juxtu mantentzea irixten bagera, erdaldunentzako ikastola bereziak nola ireki?

Haur batzuen eskubideak zapaltzera beharturik gaude haur hoiei beraen beste eskubideak emango badizki. Hau dana gu guzian eskubideak defenditzearren. Beste biderik ez dugu, eta situazio honetan ez gera arkitzen geure borondatez ez orixe!

Arazoak hau eta beste guziak neurtu ditzagun, beren benetako dimensioan, hau da, situazioaren arabera sentimentalismoan erori gabe.



Askatasuna

Haurraren heziketari buruz, milla bu-
ruauste ematen digun arazo bat askatasunarena
da. Gai honetaz iritzi nahiko nahasiak dauzka-
gu eta askotan ez dakigu nola joka. Hori dala-
ta nere 4 urtetako haurrekin ezin bestekoa du-
ten behar hau betetzeko ahaleginetan nola mol-
datzen naizen azaldu nahi nuke.

Gure artean askatasunean hezitzeko
kondizio idealetan diran ikastolak gutxi izan-
go dira, baina nahiz eta mugak oso estuak izan
beti arkitzen da, arkitu behar da, askatasun
giro bat lortzeko modua.

Leku txikiegiagatik batezere gogoz-
koak dituzten lanak egiteko, nere taldeko haur-
rek askatasuna nahiko mugatuta dute; lan dife-
rentetean jarduteko gauzentzako toki egokiak
(haurrak beren gisara ibiltzeko moduan), eta
inor estorbatu gabe mugitzeko lekua derrigor-
rezkoa bait da.

Egunero, goiz eta arratsalde, aurre-
nengo ordu-erdian nahi dutena egiteko eskubidea
dute: jolasak, marrazkiak, disfrazak, beste tal-
deetako geletan ibilli eta abar, askatasun osoaz
Jakina, askatasun honek gure situazioak jartzen
dizkion mugak ba ditu; karraxiak, korrika eta
saltoka ibiltzea zeharo debekaturik daude izan
ere, gure azpian etxe-bizitzak daudenez geroz
ahal dugun zaratarik txikiena egitera behartu-
rik bait gaude.

(honekin ez dut esan nahi hala ez balitz dana libre izango lutekeanik, bigunagoak izango gi nakela baizik. Kontuan har 4urtetako haurres ari naizela) Beste muga bat, lehen aitaturako toki-ezak jartzen du. Adibidez, haur asko bil tzen danean, espazio handia behar duten zen bait jolas utzi egin behar izaten dute, bes teentzat oztopogarri direlako.

Muga hauek haurrentzako hain garran tzi handikoa dan mugitu beharra erreprimitzen dute, baina geroxeago behar honen ihesbidea baratzen arkituko dutenez, nere ustez ekilibio bat lortzen da.

Marrazkigintzan askatasun osoa, hau da, nahi dutenean egin eta nahi duten bezala, ahal dan guzietan; mugaturik bestetan (zoritxa rrez zorioneko tokia dala ta, gehienetan.) hau da momentu jakin batean, eta batzuetan margo bakarrarekin, baina beti nahi dutenean eta nahi duten bezala marraztuaz berak aukeratutako mar goekin.

Guzien aurrean kantatu, ipuiak eta gogozkoak dituen gauzak esateko garaian, aska tasun osoa dute parte hartzeko edo ez hartzeko

Gehienetan egiten duten gauza guzie tan saiutzen baiz aukerabideak ematen; lan hau edo bestea egiteko posibilidatea, guziak zer bait egin behar dutenean bi edo hiru lan auke ratzeko jarriaz eta aukerarik ez dagonean be ti dute lana nahi bezala egiteko askatasuna.

Danak abesten dutenean norbaitek nahi ez badu ez du kantatzen, bainan, hori bai, isilik egon behar du, diziplina eta askatasuna batera bait doaz beti.

Haurrak karakteristika bereziak ditu, mugitua da, zaratatsua, atenzio laburrekoa, burru kalari, a kontra egiteko beti prest dagoena, maita sun behar gorria du. eta abar. Horrelakoxea da eta guk errespeto osoa zor diogu. Askatasunean he zitzeko hurraren izaera ezagutzera beharturik gaude, berari dagozkion lanak eta mugak jartzeko eta bere naturaren legeak, diziplinaren izenean ez zapaltzeko.

Aukerabideak oso kontuan hartu behar ditugu. Aukerabiderik gabeko askatasunik ez bait dago; bere posibilitadeei dagozkionak noski. Ezin genezaioke, esate baterako, euria ari danean garbina jantziko duan ala ez planteatu, edo eta trasteak leihotik behera bota nahi balitu, hori egiten, utzi e.a. Hurraren seguridadeak, fisikoak, eta neurri berean edo handiagoan, espiritualak eta neurri berean edo handiagoan, nahitaezko du zenbait muga. Adinarekin aldatzen joango dira muga hoiek.

Jarriko zaizkien beharrezko mugak eta, zirkunstantziek eskatuko dituzkenak, lojikoak eta nahiko argiak izan bitez. Nahiz eta sarritan haien zergatia, haurrak ondo ulertu ez, zuzenak dirala senti behar du eta ez jauntxokeria kapritxosoak, umore txarrak, presak, komodidadeak eraginak dirala.

Beraz ez ken haurrari bere izaera-
ren manifestazioak agertzeko askatasuna eta -
honekin batera eman aukerabideak, hau da, as-
katasuna erabiltzeko benetako posibilitateak



Espresioa

Espresatzeko ahalmena gizon guziak daukagu eta oso hedatua gainera, horregaitik gera gizon; espresiorik gabe ez dakit zer izango giñakean.

Gaizki ala hobeto danok espresatzen gera; hil ala bizikoa da guretzat. Bainan, gehie nok ahalmen hori gutxi desarrollatua daukagu, nor malak agertzeko haina espresatzen gera, hortik gora gutxi; artikulu hontan honi deituko diot: espresiorik eza.

Espresatzen jakiteak garrantzi han dia du gizonarentzat, batetik bere barne-izaera kaporatzea lortzen duenean, askatu, liberatu egiten da, bere NOR-aren jabe egiten da; honela berak dezakeana aixago lortzen du eta frutuak bere-bereak izango dira, eta bestetik gizonekin komunikazio sakona lortzen du, aberastasun bikaina atereaz.

Zenbat sufrimendu gizonengan, barrenean daramatena agertzen asmatzen ez dutelako! Zenbat sasi-nortasun berak izaten ikasi ez dute lako! (Espresioa izanik nortasunaren manifestazioa) Zenbat lan eder, frutu ugari galdu dira betirako, espresio-hutsune honengaitik!.

Gure barrenak agertu behar gorria dauka; agertzen dan arabera eboluzionatzen eta perfekzionatzen da. Barrenean daramaguna illuna eta nahasia izaten da batzuetan, eta aldiz argia eta ximplea, kamporantzean hartzen du bere benetako dimensioa.

Bi eratan sufritzen du gizonak espresio falta hau, espresatzen asmatzen ez duelako, espresio-bide faltaz alegia, eta espresa tzeko lotsaz, bere buruarekiko konfiantzarik eza beraz.

Espresio hautsune ikaragarri honen, haurtzaroan dituela sustraiak ezin ditekete. Hiru bat urterarte, espresioa, haurraren benetako izaeraren manifestazioa da; baina espresio-bide aberatsagoak eskuratzen doan neurrian, inguruko influentziaren indarrez, erraz itxitzen da, ingurukoak nahi duten bezelakoak izaten saiatu behar bai dute; haiek nahi duten bezela eta nahi dutenean hitz egin, marrazkietan berdin, eta abar. Pixkanaka espresio-bideak ez dira nortasunaren agerketa, eta hona hemen gizakia sufritzen, orain gehiegi konturatu gabe, konturatuaz handitzen danean.

Arazo honetan erraza da ikusten ikastolak duten erantzunkizuna; maila guzietan noski, baina lehenengo urteetan batez ere; haurra bakarrik moldatzen hasten danean eta espresio bideak errazagoen eskuratu ditekete garai horretan bai du zapuztuta gelditzeko arriskurik handiena ere.

Txiki-ikastoletan eman behar zaio lehenengo aurrerakada espresio ahalmenari. Nola?

Norbere buruarekiko konfiantzak zer ikusi izugarria du hauzi honetan, orduan, konfiantzazko giroa sortu behar da aurrenik; hortarako bide bakarra dago: haurrari dan beze lakoa azaltzen utzi eta hau ez soportatu behar rezko karga bat bezela, maitasun osoz baizik.

Haurrak hitz egin beharra dauka eta esaten duena esaten duela, edozein momentutan, beti gogoz entzun behar zaio. Haur txikiaren ateraldiak ez lirake bein ere, neurri handi batean behintzat, zapuztu behar. Pixkanaka disziplinatzen joan behar du, baina txiki-ikastoletan halako presa dagoenik ez dut uste. Berritxukerietan hasten diranean moztutzea bi dezkoa da, askotan hitz egiteagaitik hitz egiten bai dute, beste haur batek hitza ateratzen duenean batez ere; baina kontuz eta segun ze haur dan; ez da berdin haur berritsu bat isil-eraztea edo hitz gutxiko bat eta.

Andereñoak entzuteko beti prest egon behar du eta hitz egiten ez dutenei hontara -- bultza poliki, pelmadarik eman gabe bere hitz egin nahi-eza errespetatuaz.

Partikularki, haurra aixago mintzatu da, baina guzien aurrean egitera ere bultzatu behar da, danen aurrean galderak egiten ausartzera iritxi behar du.

Asmo honekin, denbora hartzen dut egunero, nahi dutenak nahi dutenez mintza ditezten guzien aurrean; ba dira hontara ko behinere prestatzen ez direnak, haueri ba tzuetan zuzenki proposatzen diet hitz egitea presio pittin bat egiñaz, jeneralean ez da gehiagoren beharrik izaten; hala ez balitz, pazientzia, jarriko dira-ta.

Berak asmatutako ipuiak esan araztea ere oso aberatsa da eta guztiz atsegin zaie; ondorenean ipuia antzestu arazitzen bazaie areago oraindik. Egunero esan erazten diet nik hiru edo lauri, gehiagori entzuten aspertu egiten bai dira, lehenago aitatu du dan xistema erabiliaz, hau da, nahi dutenak, eta behinere prestatzen ez direnei pixka bat bultzatuaz.


Barne agerketarako berebiziko bide egokiak marrazkiak eta pintura dira, zera ro libreak izanez gero, noski. Hara hemen Ar no Stern jaunak esaten duena bere "Compre-sion del arte infaltil" luburuan:

"El verbo (la palabra) solo puede expresar lo que se halla en lo consciente del niño; poca cosa en comparación con todo lo que se desarrolla dentro de él. Siendo incompleta su expresión verbal, el niño no puede decirlo todo por este medio; y así, una gran parte de si mismo se escapa de su conciencia. Un segundo medio de expresión llega entonces a completar el de la razón, el lenguaje

de lo inconsciente; la expresión simbólica, el arte. Con él nace la expresión total, Sin él el niño vive como un enfermizo. Ese segundo lenguaje es un medio de liberación. Permite al niño escribir el diario íntimo de su psiquismo en cuadros-confesiones y puede ser un medio de comunicación mediante el cual sepan leer esos mensajes: padres, educadores, el psicoanalista.

Sabiendo esto no podemos seguir ignorando tal lenguaje. No se trata de interpretarlo (sacar a la luz de lo ordinario lo que debe permanecer como propiedad íntima del niño) pero debemos saber cuál es ese lenguaje, de qué elementos se compone, para que nuestra conducta y nuestra acción educativa jamás impidan la expresión del niño".

Lehenago esan dudatu bezela marrazkiak libreak behar dute izan espresio bide izateko. Kopiatzearekin haurrak ez du ezer egiten pultso ona ta afizioa badu, dibujo fin batzuek egingo ditu, bainan heziketa mailan ezer gutxi aurreratuko da. Eman haurrari papera eta marrazgoak eta pintzelak... eta egin dezala nahi duena; beste danakin bezala egiten duen guzia apreziatu, berak nahi duten bezela egiten duten guzia ondo dagoela argi eta behar dan haina al diz adieraziz; hau esaten dut, haurrak beste-ren marrazkiak despreziatzeko tendentzi handia dutelako, timidoenenak batez ere, eta egia izanik, iritzi honek, segurantz handia ematen dio haurrari.



Lanaren zuzenketa

Lan banandua eta lan kooperatiboa

Lan banandua eta lan kooperatiboa
Lanaren zuzenketa.

Laneko planak aurrera ateratzeko -
behar ditugu:

- a) Ordena eta diziplina ondo zuzenduta. Ordena eta diziplina, ikastolan eta ikastolatik kampaia behar dira. Denok konforme gera -- oinarritzko behar hauekin.
- b) Orain arteko ikastetxeen ordena eta diziplina-era, ez zaigu gustatzen. Heziketa lanaren bidez lan egitea askoz ere egokiagoa iruditzen zaigu. Heziketa lana nolakoa dan edo nolakoa behar lukean ez det orain azalduko. Lan zaila dirudi eta ausart jokatzeari litzake, oraingoz, bide hauek urratzen hasia. Hontaz ongi mintzo izan dira Freinet eta Makarenko.
- d) "lanean hezi" host, lanerako planen bidez hezi, lana hezitzerik ahal izan dedin ikastolak prestaturik egon behar duala esan nahia du. Horra guk aurkitzen dugun oztoporik handienetako bat. Konzepzioak ez dira aski! Teknika alderditik oinarri bezela errealidade bat egin behar dugu.

Oraingo behintzat haur txikiekin ez bada ere, sei urtetatik gorako haurrekin batetik legeak agintzen duana, Ministerioak programatzen duana eta gurasoen nahia umeen bizitza eta interesekin elkartzen ba da gaur aski lan. Sei urtetatik gorako haurrekin espezializazio lana eta kulturako lehenengo mailak, sarritan azkarregi, urratzen bide dira.

Gora behera honek tresna ugari eskatzen du. Tresna egokiak, zoritxarrez oraindik ez ditugu eskuratu eta nolabait bi alderdiok; haurraren ona eta sortzen asi dan langille-gizarte berriaren aurrerapena ongi elkartuko dituan umea eta umearen bizitza batetik eta legea beste aldetik.

Lehen bezala orain ere, bada lege, inspekzio, bilinguismo eta, lan tresnen exkaxkeria, ikastolak heziketa tradizionalaren ur geldietan zabartzeko arrizkuan ipini ditzakeana.

Planeaturik dugun burruka hontan, bizitzari lotuta jarraitzeko urratu ditudan bide batzuk azaldu naho nituzke.

Lan banandua batetik, eta lan kooperatiboa besterik lortzea izan da lehen pausoa.

LAN BANANDUA.

Arrazoi gabeko agintaritzapean ilumpetan bizitzea, gu gizakioi, iñoiz ere ez zaigu gustatu, ezta ere gure lanetan aritzea lan hoi bidez gizartearen zuzentzaile izatea baino menperatuak izatea ba datorkigu.

Hurrekin ere berdin gertatzen zaigu. Sarritan gizartean onartzen ez ditugun legeak ezartzen dizkiegu gure hurrei. Sei urtetatik gorako haurrak kultura bideetan jarri -- behar ditugulako; eak jakin ala ez, bizi ala aspertu, kultura minimo batez ornitzen saiatzen gera. Hiztegia aberastu behar dalako, zenbakiez jabetu, gramatika ikasi, amaigabeko ariketa aspergarriei ekin eta ekin jarduten gera Laster konturatzen gera haurrak aspertu, ilundu, aldendu egin zaizkigula kultura bideari eusteko bixigarria falta zaielako.

Gogora datorkit orain hainbat urtetan ikastoletan erabilli ohi dan hurrekiko elkarizketa bizia, berritxukerien iturri eten gabea; baina oroit gaitezen gaiak zabaltzeko, hiztegia aberasteko, beste lan batzuk hasteko bide egokia izan dala. Izan dituan ondore sen datzaile edo terapeutikoak ez ditzagun ahaztu.

Bide interesgarri honen eredu sentitzen geranez geroz, jardunketa hori sei urtetaik gorako haurrentzako egokitzen saiatu naiz.

Hona hemen ezperientzi txiki bat.

Adibidez, hizkuntza egiteko gramatika tradizionalaren mekanikari jarraitzen dien fitxa batzuk ba ditugu: esaldial, izena, aditza edo egiteak, izea laguna t.a.

Baina era berean lehen aitatu dudan bide horri jarraituaz beste bide bat askoz biziagoa, errealagoa, haurren interesoi lotuagoa, eta gizartean itsasiagoa erabiltzen dugu : Idaz-azalpenak.

Idaz-azalpena. Haurrak etxean, ikastolan, nun-nañi, bi, hiru edo lerro gehiagotan bere bizitzaren berri jasotzen du. Berri hauek oso desberdinak izan ohi dira eta bizitza bezin zabalak, aberatsak, sakonak.

Hona hemen adibide batzuk... (haurrak idatzi zituzten eran jarriko ditugu)

Atzo nere amonaren etxera joan giñan. Baskaldu ondoren elurretara joan giñan eta oso otza zegoen. Elurretatik etorri eta gero estufaren ondoan jarri giñan.

Edo beste hauek...

Bart nere aitak ez niolako berak esandakoa bete esan zidan: motel, motel, iri esan edo paretari esan, berdin dek.

Egun baten nere osaba etorri zan eta esan zun huelgan zeudela.

Atzo nik ametsa egin nun otzoak koska egin zidala eta nik esaten nuan ai! ai! ai! bañan gezurra zan.

Lehengoan gizon batek esaten zuan Ah! ah! señores, tengo medias de Tolosa.

Atzo nere osabak aizkora txikia egurrezkoa ekarri zidan, urrengoan labana egingo dit.

Gaur goizean nik nere amari esan diot: tonta. Bera jotzen asi zait eta ni ere jotzen asi naiz eta negarrez asi da.

Praktika berri hau jarraitzea pentsatu nuanean, aurrez oinarri batzuk onartu nituan

- 1.- Batetik, umeak libre behar du, nahi duana, nahi duanean, eta nahi duan lekuan idazte ko. Idaz-azalpenak librea izan behar du benetan. Askatasun osoa gorde behar dala uste dut nahiz eta batzuetan gai ximpleak parregarriak, betikoak erabili dituala iru ditu. Beraz, haurrek, zerbait azaltzeko beharra eta gogo bizia sentitzen dutenean, idatzi behar dute.

Haurrak zerbait bizi, eta adierazi nahi duanean nun nahi idazteko prest egoten da: onenean bere etxeko mahaiaren ertz batetan berdin ikastolako sarreran beharbada lan librea egiteko garaia uzten diogunean.

- 2.- Bestalde, benetako motibazioak. Nork ez ditu gogoratzen iñingo motibaziorik gabe, txokolatea edo beste edozein gauza aurrean zuala asmatu behar izan redakzioak edo olerkiak?

Etxean, kalean, lagunartean, gizar-tean berri asko jasotzen dute gure haurrek. Hona hemen ume batek jaso zuana: "Atzo nere aitari esan nion: abe ekarri zuan Margo Ederdun eta esan zian ezetz eta esan nion; abe papera etorri zan eta esan zin baietz eta esan nion

biar ekartzeko Margo Ederdun.

Berdin beste honek... "Gaur sendagillea rengana joango naiz radiosetan ikustera estula aundia daukatelako"

Beharrezkoa zaio haurrari gertaera hoi-en berri ematea. Ikastolan giro onik balitz eta eskola tradizionalaren praktika loituetan loka-tzez zirpristindu ez balira, arin onartzen dituz te haurrek, marrazko edo idatziz eta are gehiago hitzez, lagunei (bertakoak ala urrutikoak berdin dio) beren barrua azaltzeko bideak.

Abereek zaintzea, baratza, lan egitea, kampa irten eta gizartearen ezaugera t.a. da-larik ikastola lana, bizitzari lotua bada eta konfiantza giro baten egina ez da buruauste ha-undia izango haurrak idazten jartzea, idatzita-koa heziketa bidean zuzentzea baizik. Lehenik ere ezagunak ziran hainbat aipatutako Dekroly ren interes-ardatzak baina sarritan ondorioak tradizional heziketaren molde zabarretan izkuta tuta gelditu dira.

Hamaiketan, lan banandua bukatzen dugun bezin laster ikastolan prestaturik dugun leku berezi baten biltzen gera gure idaz azalpenak eskuetan ditugula... Idaz-azalpenak idaztea lan banandua da, baina bai lan kolektiboen iturri etengabe, bikain, aberats, bizigarria ere. Idaz azalpenak dirala eta, hiru irtera egin ditugu: baserri batera, fundizio batera eta burnia lan tzen duen fabrika batera... Azalpen hoiek, hain kondizionatuta aurkituko ez bagina, heziketa osoaren eta kulturaren oinarritzko ardatz bizi bi hurtu behar litzaizkiguke.

Lan banaduan ari diralarik, ba du irakasleak idaz-azalpena egin duan haur bakoi tzaz zerbait txukuntzen, idazkera zuzentzen, joskera jatortzen, zati illunak argi jartzen t.a. lan interesgarririk egiteko... Une hontan irakaslearen partizipazioa handia izan diteke Ez noski haurrak azaldu nahi duana irakaslearen interesetara okertzeko, baizik eta haurrak azaldu nahi duana ondo idatzita egon dedin.

Lan kolektiboa hasten da. Harbel handi baten aurrean, haurrak korroan eseri dira. Karpetak esku artean dituzte. Batzar hau, egu nero haur desberdin batek zuzentzen du, ni, laguntzaile bat besterik ez naizela.

Haur honek bete behar duana:

- a.) idaz-azalpenen irakurketari hasiera eman
- b.) lagunek irakurtzen duten atal-burua harbelean idatzi.
- d.) Botazioa zuzendu. Botazioa egiterakoan haur zuzendariak atal buruak irakurtzen ditu. Orduan umee**k** boto bat dutela, gehienik gustatu zaiena edo ondoenik dagoena auker dezake.

Botoz erraz irabazi duanak lehenengo edo bigarren botazio batetan ba du haurren intereskarri izateko posibilitate handia. Orduan irakasleak edo kaligrafia ona duen batek harbelean idazten du, danen artean zuzendu dezagun irabasleak idatzi duan idazkera berberan.

Idaz-azalpen hauen inguruan sortzen diran lekarrizketek ederki azaldu dezakete haurren interesen-ardatza eta horrela aste osorako lan bihurtu.

Hona hemen posibilitade ederra, ehunetik-ehun bizitzari lotua, idazkera apaintzeko, joskerazuzentzeko, hiztegia aberasteko, ezpresioa lan tzeko gramatika erakusteko eta gaiak zabaltzeko bide aparta.

Harbelean idatziz gero banaka, binaka edo launaka irakurri egiten dugu zer eta nolaz idatzi ta dagoan ohartu gaitezten.

Berehala zerbait zuzentzekorik duan haur rak noski, aurreratu eta berari iruditzen zaion konponketa azaldu ondoren harbelean zuzentzen du Denok konforme ba ger, beste bat irtengo da, azkenik ni... Haurrak interes handiz artu dute ora ingoz zuzenketa hau...

Hona hemen egun baten egindakoa...

"Atzo el ke meta gol portero jostatu giñen eta neri ez zidaten golik sartu.

Anttoni etorrita batzuk joan egin ziran"

- "Elke" aparte jarri behar da: "el ke"

- Hemen atzean punttua jarri behar da.

Zergatik?

Texto baten bukaera dalako.

- "ke" hau erderaz gaizki dago "que" idazten da.

Orduan neronek azaltzen diet "ka-ke-ki-ko-ku", erderaz "ca-que-qui-co-cu" idazten dirala.

- Anttoni jarri aurretik punttu bat jarri behar da.
- Zergatik joan ziran? Galdetu zuan beste batek. Egia esan neronek ere ez nuan orrelakorik espero! Baina itxura danez textoaren idazkera alderdiari bakar-bakarrik begira beharrean ba dijoaz pixkana pixkana gaiaren azalketa bera zuzentzen. Haurrerapen handia dakust.
- Ba..., erantzun dio beste batek, arropak loiez zikinduta zeudela ikusi zualako.
- Bainan, nork zikindu zituan?
- Gu ez ginan izan, beste mutil batzuk izan ziren.

Ba-dirudi bildur zirala diziplina gaia bihurtuko ote zan.

- Neronek galdetu nien: Anttonik zer zion?
- Oso asarre jarri zan.

Idea hauek danak Idaz-azalpenera igaro ziran noski. Idaz-azalpen zatar hura itxura aldatzen ari zan alajaña!

Ondorioak.

Haurrak ahal dutena zuzenduz gero, azalpen ilabur bat egin izan diet, hizkuntzaren

lanketarako aurkitzen ditudan bereiztasunak azalduaz. Beti dago zerbait ikasi edo finkatu beharra!.

Idaz azalpenak horrela zuzenduta limografoan pasatzeko prest daude. Honela ikastolako "aldizkaritxo" osatzen dugu. Haurrentzako motibazio iturri berria eta bizia alegia. Bigarren alea ateratzeko asmotan gabiltz...

Lehenengoa haurren gurasoen artean zabaldu zan, baina tamalez, haurrez zerbait azaltzen ez ba-zaie, ez det uste gurasook "aldizkaritxo" honi egin behar litzaioken bezalako arreta egiteko gertu daudenik.




Haurren bihotza aspaldian gal-gal dugu Karraxika eskatzen dute bere literaturarentzat, berak idatzitakoarentzat, nagusien artean berei dagokien lekua. Ez dezaiegun uka...

"Atzo Geraira joan giñan. Aitatxo, Agustín eta Iñaki pelotakin jostatzerara joan ziran eta gu tabernara joan giñan. Terek, amatxok eta izebak kafesnea artu zuten, Iñakik esnea, Mari-terek eta biok tarta".

"Atzo etxera eldu nintzanean nere amak panazko galtzak erosi zizkidan"

"Gaur goizean txabolara joan naiz eta ittutia zaukan eta Joxe Alejandrori esan diot ittutia zukala eta gero Imanol etorri da eta esan du utzitzeko eta utzi egin degu"

"Atzo nere izebaren etxera joan nin
~~esan~~ eta nere izebak eta nere osabak afaltze-
rakoan esan zidaten: ogi beltza zeukatela eta
esan zion nere amak emaidazu pixka bat eta ogi
beltza jan nuan eta esan nion nere izebari mi
katza zegoala.



Eguberriak 6 eta 7 urteko aurrekin

Eskolan erabiltzen dugun programaren barruan "konsejo" deitzen diogun zera bat dugu Hau da, asteko lana, diziplina arazoak eta, haurrak berak antolatzea. Hasieran astean behin egiten genuen baina maizegi zala iruditu zitzaigun Geroztik amabostero elkartzen gera, danok boro-billean jarrita hau egiteko. Nere ustez programa guzietatik fruiturik haundiena zati honek eman digu. Oraindik gogoratzen naiz lehenbiziko konsejoa nola egin genduan. Haurrak hitzik esan gabe atera ziran eta ni desanimatuta. Ez nuan pentsatzen hain kaskarra aterako zanik.

Halaz ere aurrera jarraitu genuan eta orain egiten ditugunak ditugunak diferentzi ederrekoak ateratzen zaizkigu. Aurreneko konsejutan zailena konfiantza giro bat lortzea, beren iritziak bere lagunen artean bildurrik gabe presentatzea izan zan. Haurrak berak dira beren pentsaerekin, beren nortasunekin, aurrera eraman behar dutenak.

Askotan bildurra ematen digu gurasoak nola hartuko ote dituzten gauza hauek. Zenbat aldiz entzuten dugu eta entzungo dugu beren haurrak ez dirala aurreratzen irakurtzen eta. Gure barrenean ere ez ahal degu pentsatu, holako gauzetan denbora asko galtzen ari geranik? Baina sakondu eta zuzen jokatu ezkerro ikusiko genuke haurrari zor diogula aberastasuna eta ez gurasoerik poz. Ezin dezaiokegula haurrari kalte egin

honek karraxirik egiten ez digulako.

Danak beren partizipazioa ematen hasi ziranean, beste oztopo batekin egin genduan. Anarkia izan zan. Batek hitz egiten zuzanean beste lau edo bostek batera hitz egiten zuten. Urrun, moderadore bat izendatu genduan anarki hau kontrolatzeko eta honek esaten -- zuan zein haurrek bakarrik hitz-egin bear zuan. Billera hauetan beste puntu bat izan genduan zuzentzeko: Iritziak biltzeko garaian maizegi ateratzen zan iritzi berdina eta jendea azkenian azpeltu egiten zan. Esate baterako "Lana egiten ez dute uzten", edo "zarata gehiegi ateratzen da lana egiterakoan".. Iritzi bat behin esan ezkerro ez zala berriz esan behar erabaki zan. Eta esanak bildutakoan bat aukeratzen genduan aztertzeko eta bi aste hoietan zer egin zitekean ikusteko.

Gutxi gora-behera hauek izan dira gure trabak eguberritako konsejua egin baino lehenago.

Eguberritako konsejuan, nola eta zer egin behar genduan haurrak sumatu zuten. Eguneroko elkarrizketan, batek esan zigun noiz preparatuko ote genituan gabonak. Ondoren -- danak sutu ziran arazo hortaz eta lehengo aria baztertuta gelditu zan beste gai honekin jarraitzeko. Elkarrizketa hontatik gauza bat aterako zan garbi: konsejua egin behar genuela hontaz.

Era hontan, urrengo ostegunean danok korroan jarrita, beren iritziak eman zituzten Gusto danetakoak agertu ziran. Batzuek lehen-go urteetan egiñak bezelakoak azaltzen zituzten, besteek dendetan edo etxeetan ikusitako gauzak. Iritzi guzietatik bost boto zituztenak aukeratu genituen. Interesik haundiena zuhaitzak sortu zuen.

Hona hemen aukeratuak gelditu ziranak:

- a) Paper luze bat horman jarri eta han izarrak ipini.
- b) Zuhaitza ekarri eta hura apaindu.
- c) Paper gogorraz erregeak eta estalpea egin.
- d) Errebistetan ekartzen dituzten lanen artean politenak egin.
- e) Fitxak, texto libre-eta, eguberriari buruz izango lirake. Hau nik esan nuen eta botazioetan haiek aukeratu zuten.

Lan hauek aurrera eramateko hiru haur aukeratu genituen arduradun, baina danok kolaboratu behar genduan haiekin. Bakoitzak berari interesatzen zitzaion gaia aukeratzen zuen. Era hontan lanak aste guzira gelditu ziran zati-tuta. Talde batzuk haundiagoak ziran, gaiak interes gehiago sortzen zuelako. Adibidez: Zuhaitza eta izarrak. Talde batean izena emanik izan arren, batzuk beste talde batetara aldatzen ziran talde hartan baztertuta sentitzen ziralako.

Gauzak puntu hontaraino organizatuta egon arren, nik neronek posibilidade gutxi ikusten nuen jarritako helburu batzuk betetzeko.

Adibidez: Zaila iruditzen zitzaidan haurrak zuhaitza egin ahal izatea. Eta hura nere har ridura urrengo egunean zuhaitza ikastolan ikusi nuanean.

Orain hobeto ikus dezagun talde bakoitzaren lana:

a) "Orman papera jarri eta han izarrak"

Lan hau egiteko jende asko zan. Hasieran izarrak egiten bakarrik jardun ziran. Batek etxetik molde bat ekarri zuen eta gehienak handik egiten zituzten. Besteak nahi zuten bezala. Askok eta askok reguladidade haundirik gabe. Errebistetan ikusitako kandelak, gorosti ostiak eta bonbillak marraztu eta moztu egiten zituzten.

Pegatu, horman bertan egiten genduan izan ere ez bait genduan paper luzerik ekarri. Gauza bakoitza hoiak nahi zuten tokietan selloz erantsita gelditzen zan.

b) "Zuhaitza ekarri eta hura apaindu"

Nere iritziz politena eta interesik haundiena sortu zuana izan zan. Ikastolan pila ikusi eta umeak animatu egin ziran. Gelaren erdian ipintzea erabaki genduan. Zuhaitzari zutik eusteko galleta kaja batekin zerbaiten billa kalera atera ziran eta handik puskatuta batera harri txikiz beteta ekarri zuten. Zuhaitza zutik jarritakoan, egindako gauzak jartzen asi ziran: poxpolo kajari koloretazko

paperaz azala jarri eta zinta betekin loturik bilduma politak egiten zituzten. Lan zaila izan zan. Nik molde batzuk egin nituen eta hai ek beste paperetan egin behar zuten. Moztu eta kolorezko txarol paperak erantsea zan urrengo lana. Errebistetatik hiru eratako arraiak aukeratu genituen.

Zati bakoitza kolore desberdiñekin berak nahi eran: gorria, oria, urdiña, orlegia, beltza, eta txuria. Etxetik apaingarriok ekarri zituzten: papa noel, plastikozko izarrak eta postalak.

c) "Paper gogorrez erregeak eta estalpea egin"

Hemen ere nik egin nituen patrioiak, postal batetatik aukeratutakoak. Gero berak kartulinetan egin eta kolorezko paperak erantsi. Ez pentsatu erraz egiten zituztenik lan hauek, egunak eta egunak behar izan zituzten Danetik gertatu zan. Haur batek, papera erantsen ari zala, kola-pote barrena joaten utzi zuen brotxa, gero, berak esan zuenez zer gertatauko ote zan ikustearren.

Interes gutxiago sortu zuten fitxak eta texto libreak. Batek edo bik bakarrik egin zuten texto librea. Danak esku lanak egiteko prest zeuden.

Egunero gogoz egiten zituzte lan hauek Konturatu gabe joaten zitzaizkigun orduak. Lanak taldeka zatituta ziranenez, talde bakoitzekoak elkarri laguntzen zioten. Hori gauza berria zan nere gelan.

Orain arte bateonbat zeozer egiten ari zalarik ez zitzaion gustatzen beste bat berakin jardun tzea. Oso lagunak behar ziran izan lan kolekti^o boetan azitzeko. Gauzak egiteko besteen behar^{ra} sentitzen zuten eta besteekin batera egiten ohitzen joan ziran.

Haur batek bere etxetik ekarritako joku batekin gertatu zitzaiguna "Mosaiko" egi^{te} teko joku bat zan. Hiru edo lauen artean egi^{te} teko oso egokia baina jabeak bere lagunei ba^{karrik} uzten zien eta bakoitzak berak bakarrik egin nahi izaten zuen. Eguberritako lan giro honekin kutsatuta, azkenean, normala iruditzen zitzaien beste edozeinekin mosaikoa betetzea.

Oporketak bukatutakoan, eguberritako lanaren azterketa egin genduan. Gogoz nengoen beren impresioak aitzeko. Elakrrizketan gehie^{nak} zuhaitza aitutzen zuten. Batzuek esaten zu^{ten} "Urrengo urtean berriz jarri behar dugu piñua". Beste batek oso pozik zegoela esan zi^{gun}, aurten berak nai zituen bezalako izarrak egin zitalako eta berak nahi zuan tokian ja^{ri}. Besteak, gela oso polita zegoela eta egun batzuetan zegoan bezela utzi beharko genukeala

Hauek izan ziran eguberri garaian beste urtetan ez bezala aurten bereiziki egin ditugunak.



